## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-3340

115/2002 DEKRETUA, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena.

Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren lehentasunetako bat da energia zentzuz erabiltzea eta, bereziki, energia baliabide berriztagarrien aprobetxamendua; izan ere, hala dago jasota 3E-2005 Planean (Euskadiko Estrategia Energetikoa).

Energia berriztagarrien artean, eolikoa da etorkizun handiena daukana, garapen teknologiko maila eta kostuak ikusirik eta garbia eta bukaezina izanik, oso aplikagarria delako baliabide energetiko gisa gure erkidegoan.

Administrazio publikoen ardura izan behar da energia eolikoa bezalako baliabide energetikoaren aprobetxamendua ahalik eta baldintza tekniko onenetan egitea, ingurunearen berezko balioak babestuz eta tokiaren nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen sozioekonomikoari lagunduz.

Zentzu horretan, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak honakoa xedatzen du 21. eta 28. artikuluetan: energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak eraiki, ustiatu, aldaketa handiak egin, eskualdatu eta itxi ahal izateko, aldez aurreko administrazio baimenen erregimena bete behar dela.

Bestalde, Lege hori garatzen duen 2000ko abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak energia elektrikoa ekoizteko instalazioei baimenak emateko prozedura arautzen du oro har; baina ez dago parke eolikoen baimenak izapidetzeko berariazko prozedurarik.

Era honetako instalazioek ezaugarri bereziak dituztenez, Dekretu honen asmoa da arlo honetako araudi falta betetzea, derrigorrezko administrazio baimena emateko prozedura arautuz.

Azkenik, dekretu hau emateko kontuan hartu dira, batetik, orain arte adierazitako guztia eta, bestetik, Estatuko administrazio orokorraren eskumen-eremua eta autonomia erkidegoena mugatzen duen eta legeak garatzeko Euskal herrirako Autonomia Estatutuan xedatuta dauden Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneremua mugatzen duen Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 3. artikuluko 3. pa-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-3340

DECRETO 115/2002, de 28 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Uno de los objetivos prioritarios de la Política Energética del Gobierno Vasco recogido en el Plan 3E-2005 -Estrategia Energética de Euskadi 2005-, es la utilización racional de la energía y en particular el aprovechamiento de los recursos energéticos renovables.

De entre las energías renovables y alternativas la eólica por su grado de desarrollo tecnológico, sus costes y su carácter limpio e inagotable, es una de las que cuenta con mayor futuro y tiene mayor potencial de aplicación como recurso energético endógeno de la Comunidad Autónoma.

Las Administraciones Publicas deben velar para que el aprovechamiento de un recurso energético, como es la energía eólica, se realice en las mejores condiciones técnicas y económicas, salvaguardando los valores propios del medio ambiente y favoreciendo el desarrollo socioeconómico de la zona y de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En este contexto, la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, determina, en sus artículos 21 y 28, que la construcción, explotación, modificación sustancial, transmisión y el cierre de las instalaciones de producción de energía eléctrica estará sometida al régimen de autorización administrativa previa.

Por otra parte, el Real Decreto 1955/2000, de 1 de Diciembre de 2000, desarrollando la Ley antes citada, regula, con carácter general, el procedimiento para el otorgamiento de la autorización, entre otras, de las instalaciones de producción de energía eléctrica; no existiendo por tanto procedimiento especifico para la tramitación de solicitudes de Parques Eólicos.

Dadas las especiales características de este tipo de instalaciones, el presente Decreto pretende cubrir el anterior vacío normativo regulando el procedimiento para el otorgamiento de la preceptiva autorización administrativa.

Por lo expuesto, al amparo de lo establecido en el apartado 3 del artículo 3.º y Disposición Final primera de la Ley 54/1997 de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, que delimitan el ámbito competencial de la Administración general del Estado y de las Comunidades Autónomas y de las competencias de la Comunidad Autónoma Vasca, establecidas en el Estatuto de Autonomía para llevar a cabo el desarrollo legislativo, así

ragrafoan eta azken xedapenetatik lehenengoan xedatutakoa.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzako Aholku-Batzorde Juridikoari entzun ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko maiatzaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Helburua.

Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzea, bai eta instalazio horiek ezartzeko baldintza teknikoak, sozioekonomikoak eta ingurumenekoak arautzea ere.

*2. artikulua.*– Aplikazio-eremua.

1.– Parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei aplikatuko zaie dekretua.

Dekretuaren ondorioetarako, parke eolikotzat joko dira aerosorgailu bat edo gehiago era integratuan instalatzeko asmoa duten inbertsio-proiektua, baldin eta 500 kW edo gehiagoko potentzia instalatua badu guztira, sare propioen bidez elkarri konektatuta badaude, instalazioetara heltzeko eta instalazioak kontrolatzeko azpiegitura berak erabiltzen badira, instalazio horiek beren energia neurtzeko aparailuak badituzte eta sare orokorrera konektatuta badaude.

2.– Aurreko lerroaldean sartzen ez diren instalazio eolikoak ondoko lege-xedapen hauen arabera arautuko dira: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea; energia elektrikoa garraiatu, banatu, merkaturatu eta hornitzeko jarduerak eta instalazioen baimenak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua; eta horiek garatzen dituen Estatuko edo Erkidegoko araudia.

II. KAPITULUA
PARKE EOLIKOKO INSTALAZIOEN
ADMINISTRAZIO BAIMENA

*3. artikulua.*– Eskabidea.

Parke eoliko bat ezarri eta ustiatu nahi duten pertsona fisiko edo juridiko, pribatu edo publiko guztiek parkearen administrazio baimena eskatu beharko dute. Horretarako, eskabide bat aurkeztu beharko dute dagokion lurralde historikoaren Industriako lurralde bulegoan. Baina, parkeak lurralde bat baino gehiago hartzen badu, Industria, Merkataritza eta Turismo Saile-

como la ejecución de la normativa básica del Estado para el aprovechamiento de esta energía dentro de su territorio, se dicta el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el 28 de mayo de 2002,

DISPONGO:

CAPITULO I.
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto la regulación dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del procedimiento para la autorización de las instalaciones dedicadas a la producción de electricidad a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos, así como de las condiciones técnicas, socioeconómicas y medioambientales para su implantación.

*Artículo 2.*– Ambito de aplicación.

1.– Este Decreto será de aplicación a aquellas instalaciones dedicadas a la producción de electricidad a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos.

A los efectos de este Decreto, se entenderá por Parque Eólico los proyectos de inversión que se materialicen en la instalación integrada de uno o varios aerogeneradores con una potencia total instalada igual o superior a 500 kW, interconectados eléctricamente mediante redes propias, compartiendo una misma estructura de accesos y control, con medición de energía propia y con conexión a la red general.

2.– Las instalaciones eólicas no incluidas en el párrafo anterior, se regularán por la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, por el Real Decreto 1955/2000, de 1 de Diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y autorizaciones de instalaciones de energía eléctrica, así como por la normativa estatal o autonómica que los desarrolle.

CAPÍTULO II
AUTORIZACIÓN ADMINISTRATIVA DE LAS
INSTALACIONES DEL PARQUE EÓLICO.

*Artículo 3.*– Solicitud.

Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, interesadas en la implantación y explotación de Parque Eólico, solicitarán la autorización administrativa del mismo, mediante instancia dirigida a la Oficina Territorial de Industria del Territorio Histórico correspondiente, o bien, a la Dirección de Energía del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en el caso de

ko Energia Zuzendaritzan aurkeztu beharko da. Eskabideaz gain, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira gutxienez:

1.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluan aipatzen diren betekizunez gain, honakoak ere aurkeztu beharko dira:

a) Zein udalerritan edo udalerrietan egin nahi den instalazioa edo aprobetxamendu eolikoa.

b) Eragindako azalera. Azalera behar bezala identifikatuta egon beharko da kartografia ofizialean, UTM koordenaden arabera.

c) Orokorrean instalatu nahi den potentzia gordina.

d) Instalatu nahi den aerosorgailu kopurua.

2.– Eskatzaileak, era horretako instalazioak exekutatzeko, legezko gaitasuna eta gaitasun tekniko eta ekonomikoa dituela egiaztatzen duten agiriak.

*4. artikulua.–* Eskabide bat baino gehiago egotea.

Administrazioaren baimenaren eskabidea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da, horrela, lehian beste eskabide batzuk (3. artikuluan ezarritako baldintzekin) aurkezteko aukera emanez. Horiek aurkezteko epea hogei egunekoa izango da administrazioaren baimenaren eskabidea bi aldizkarietatik beranduen argitaratzen duenak zein egunetan argitaratu duen kontuan hartu eta handik aurrera.

*5. artikulua.–* Eskabide bat baino gehiago egonez gero, aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Aurreko artikuluan ezarritako 20 eguneko epea bukatu eta hurrengo hilabetean, administrazioaren baimena eskatu duten guztiek honako agiriak aurkeztu beharko dituzte Industriako lurralde bulegoan edo, bestela, Energia Zuzendaritzan, parkeak lurralde bat baino gehiago hartzen baditu:

a) Parke eolikoaren aurreproiektua, teknikari gaitu batek sinatua eta elkargo ofizialak ikus-onetsita. Aurreproiektuak memoria bat izan beharko du, eta memoriak honakoak jaso beharko ditu gutxienez:

– Instalazioaren ezaugarri nagusienak.

– Zergatik ipini nahi den parke eolikoa bat dena delako tokian. Arrazoiak.

– Instalazioen kokalekua erabakitzeko erabili diren irizpideak.

– Baliabide eolikoen deskribapena. Deskribapenaren oinarrian datu historiko nahikoa eta/edo eredu fidagarriak egongo dira.

– Zerbitzu publikoko sarera transferituko den energia elektrikoaren ebaluazio kuantifikatua.

– Kokapen planoa 1:50.000 eskalan.

– Oin planoa 1:10.000 eskalan.

que el Parque sea interterritorial, presentando, como mínimo, la siguiente documentación:

1.– Solicitud con los requisitos señalados en el artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la que se indicará:

a) Municipio o municipios en los que se pretende realizar la instalación de aprovechamiento eólico.

b) Superficie afectada, convenientemente identificada en cartografía oficial en coordenadas UTM.

c) Potencia bruta que globalmente se pretende instalar.

d) Número de aerogeneradores a instalar.

2.– Documentación justificativa de la capacidad legal, técnica y económica del solicitante para la ejecución de la instalación eólica que pretende.

*Artículo 4.–* Solicitudes en competencia.

La solicitud de autorización administrativa, será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico correspondiente, a los efectos de que en el plazo de veinte días, a contar a partir de la fecha de la ultima de las publicaciones en los Boletines antes citados, se puedan presentar solicitudes en competencia, ajustadas a lo dispuesto en el artículo tercero.

*Artículo 5.–* Documentación complementaria de solicitudes en competencia.

1.– Finalizado el plazo indicado en el artículo anterior y dentro del mes siguiente, los solicitantes de la autorización administrativa presentarán en la Oficina Territorial de Industria, o en su caso, en la Dirección de Energía, la siguiente documentación:

a) Anteproyecto del Parque Eólico firmado por técnico competente y visado por el Colegio Oficial, que incluirá una memoria en la que, como mínimo, se especificará:

– Características principales de la instalación.

– Las razones de cualquier índole que justifiquen la implantación del Parque Eólico en la zona de que se trate.

– Los criterios que se han seguido para elegir los terrenos en los que se situarán, concretamente, las instalaciones.

– Descripción de los recursos eólicos, con base en datos históricos suficientes y/o modelos fiables.

– Evaluación cuantificada de la energía eléctrica que va a ser transferida a la red de servicio público.

– Plano de situación a escala 1:50.000.

– Plano de planta a escala 1:10.000.

– Instalazioak eragindako area adierazten duen planoa, UTM koordenadak adieraziz eta 10 metrotik behin sestra-kurbak ere adieraziz 1:5000 eskalan.
– Aurreikusten diren ekoizpenak.
– Exekuzio egutegia.
– Instalazioen aurrekontua.
– Instalazioak eragingo dituen pertsona fisiko eta juridikoen (ondasunen, instalazioen, obren edo zerbitzuen jabeak) zerrendak.

b) Ingurumenean izango duen inpaktuaren aldez aurreko azterketa eta horiek zuzentzeko aurreikusitako neurriak.

c) Proiektuaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren gaineko azterketa.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako agiriak aurkezteko epea bukatu eta eskatzaileren batek agiri guztiak aurkeztu ezean, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean agiriok aurkezteko eta ohartaraziko zaio agiriok aurkezten ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, lehendabizi horren gaineko ebazpena egingo da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

*6. artikulua.*– Eskabide bat baino gehiago dagoenean ebaztea.

1.– Aurreko artikuluko betekizunak betetzen dituzten zenbait eskabide aurkezten badira lehian, Energia Zuzendariak hilabeteko epean ebatzi beharko du arrazoitutako ebazpenaren bidez eta egoki ikusten dituen txostenak ikusita, zein den aurreproiekturik egokiena.

2.– Aurkeztutako eskabideak baloratzeko, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

– Instalazioen exekuzio materialerako nahikoa finantza-kaudimen eta gaitasun tekniko izatea.
– Teknikoki ziurtatzea ekoiztuko den energia eta ingurumeneko inpaktuaren artean neurriko erlazioa egotea.
– Euskal Autonomia Erkidegoko energia plangintzara hobeto moldatzea.
– Abantaila sozioekonomiko hobeak eskaintzea autonomia erkidego osoari begira.
– Inbertsioaren zenbatekoa handiagoa izatea eta inbertsio programa azkar exekutatzea.
– Eskaintzak aurkeztu zen eguna kontuan hartuta, lehenago aurkeztu izana.

3.– Aurreko paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako batetik, eta, bestetik, teknikoki behar bezala egiaztatzeko ahalik eta eraginkortasun energetiko handiena lortuta ahalik eta kalterik txikiena egingo zaiola ingurumenari, bereziki hartuko dira kontuan honako hauek: neurketa eolikoak kokagunean bertan zenbat denboraz egin diren, era honetako edo antzeko beste obra batzuetan ingurunea lehengoratzen eta obrak behar bezala exekutatzen erakutsitako esperientzia eta ziurtasuna eta,

– Plano en que se refleje el área afectada por la instalación, indicando coordenadas UTM, curvas de nivel cada 10 m. a escala 1:5000.
– Producciones previstas.
– Calendario de ejecución.
– Presupuesto de las instalaciones.
– Relación de personas físicas y jurídicas propietarios de bienes, instalaciones, obras o servicios afectados por la instalación.

b) Análisis previo de las afecciones ambientales y medidas correctoras previstas.

c) Estudio técnico-económico de viabilidad del proyecto.

2.– A aquel solicitante que no presente la documentación del punto anterior, dentro del plazo del mes fijado en el mismo, se le requerirá para que en el plazo de diez días aporte los documentos preceptivos, apercibiéndole de que si así no lo hiciera se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución y con los efectos previstos en el artículo 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 6.*– Resolución sobre la concurrencia de solicitudes.

1.– Cuando se presentaran, cumpliendo los requisitos del artículo anterior, solicitudes en competencia, la Dirección de Energía, en el plazo de un mes, seleccionará, mediante resolución motivada, previos los informes que considere pertinentes, el Anteproyecto idóneo.

2.– Para la valoración de las solicitudes presentadas se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

– Poseer capacidad técnica y financiera suficiente para la ejecución material de las instalaciones.
– Asegurar técnicamente una adecuada relación entre la producción energética y la afección ambiental.
– Adaptarse mejor a la planificación energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
– Presentar mejores ventajas socioeconómicas para la Comunidad Autónoma en su conjunto.
– Mayor cuantía de las inversiones y rapidez de ejecución del programa de inversión.
– Prioridad en la fecha de presentación de las solicitudes.

3.– A los efectos del apartado anterior y especialmente para acreditar el aseguramiento técnico de una menor afección ambiental con una mayor eficiencia energética, se tendrán en especial consideración los periodos de tiempo de mediciones eólicas realizadas en el emplazamiento, la experiencia y evidencia de buenas prácticas de ejecución y restauración del medio ambiente en obras de esta índole o similares, y los testimonios respetuosos con el medio ambiente de la actividad del

azkenik, sustatzailearen jarduerak ingurumenarekiko begirunea erakusten duela adierazteko lekukotasunak, kontuan izanda lekukotasunak egiaztatzeko egiaztagiri eta agiri aproposak aurkeztu beharko direla.

*7. artikulua*.– Aldez aurreko administrazioaren baimena izapidetzea.

1.– Aurreproiekturik egokiena aukeratu ostean, titularrak zenbait agiri bidali beharko ditu, lehenago bidali ez baditu, Energia Zuzendaritzara edo dagokion lurralde bulegora. Agiriak bidaltzeko sei hilabeteko epea izango du jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Hona hemen agiriok:

a) Instalazioaren oinarrizko proiektua.

b) Ingurumen-inpaktuaren azterketa. Azterketak ingurumenaren arloan indarrean dagoen legediak ezartzen dituen datuak jaso beharko dira gutxienez.

c) Energia ekoizpenaren egiaztagiri teknikoak, kokagunean betan egindako neurketak eta/edo korrelazio metodoak aurkeztuz.

d) Parke eolikoa exekutatzeko egutegia, bai eta finantza-plana ere.

e) Parkea instalatzeko aurreikuspen ekonomikoak. Ekipoen, instalazio elektrikoaren, obra zibilaren eta ingurumen-inpaktua zuzentzeko neurrien kostuak banakatuta agertu beharko dira.

f) Ordezkari legalak honako konpromisoa aurkeztuko du sinatuta: energia elektrikoa ekoizteko jarduera bukatzen denetik gehienez ere bi urteko epean instalazio osoa handik kenduko dutela eta lursailak lehengoratu egingo dituztela.

g) Proiektuaren edo aurreproiektuaren zatiren batek beste administrazio publiko, organismo edo udal batzuen menpe dauden ondasun, instalazio, obra edo zerbitzu, zentro edo zonaldeei eragiten badiete, zati horien separata teknikoak aurkeztu beharko dira.

h) Eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatua.

Baimena eskabide bakarra aurkezten bada, eskabide bakar horren titularrak sei hilabeteko epea izango du aurreko paragrafoan zerrendatutako agiriak aurkezteko, eta sei hilabeteko epea 4. artikuluan adierazitako epea bukatu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen.

Eskatzaileren batek ez baditu aurkezten 1. puntuko agiriak, eskatuko zaio hamar eguneko epean aurkez ditzala derrigorrezko agiri horiek; eta ohartaraziko zaio agiriok aurkezten ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, lehendabizi horren gaineko ebazpena egingo da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2.– Oinarrizko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa batera jarriko dira jendaurreko informa-

promotor justificados con las certificaciones y documentos oportunos.

*Artículo 7*.– Tramitación de la autorización administrativa previa.

1.– Elegido el Anteproyecto idóneo, su titular deberá remitir a la Dirección de Energía o a la Oficina Territorial correspondiente, si no lo hubiera hecho antes, dentro del plazo de seis meses a contar desde el día siguiente a la notificación de la resolución, la siguiente documentación:

a) Proyecto básico de la instalación

b) Estudio de impacto ambiental, que contendrá, como mínimo, los datos que establezca la legislación vigente en materia de medio ambiente.

c) Justificación técnica de la producción energética con aportación de mediciones en el propio emplazamiento y/o de los métodos de correlación.

d) Calendario de ejecución del Parque Eólico y su correspondiente Plan financiero.

e) Previsiones económicas para la instalación del Parque, desglosando los costes destinados a los equipos, instalaciones eléctricas, obra civil y medidas correctoras de la afección ambiental.

f) Compromiso firmado por el representante legal de retirar la instalación en su totalidad y restituir los terrenos, en el plazo máximo de dos años desde el momento en que cesara la actividad de producción de energía eléctrica.

g) Separatas técnicas de las partes del proyecto o anteproyecto que afectan a bienes, instalaciones, obras o servicios, centros o zonas dependientes de otras Administraciones Públicas, Organismos o Corporaciones, para que estos establezcan el condicionado procedente.

h) Relación concreta e individualizada de los bienes y derechos afectados.

En el supuesto de que no se hubieran presentado solicitudes de autorización en competencia, el titular de la única solicitud deberá presentar los documentos requeridos en el párrafo anterior, dentro del plazo de seis meses contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo indicado en el artículo 4.

Al solicitante que no presente la documentación del punto 1, dentro de los plazos fijados, se le requerirá para que en el plazo de diez días aporte los documentos preceptivos, apercibiéndole de que si así no lo hiciera se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución y, con los efectos previstos en el artículo 42.1 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

2.– El proyecto básico y el estudio de impacto ambiental serán sometidos conjuntamente a información

zio-erakustaldian, hilabete batez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean. Horretarako, eskabidearen laburpen bat argitaratuko da dagokion aldizkari ofizialean. Epe horretan interesatuek eta herritar guztiek izango dute aukera agiriak aztertu eta alegazioak aurkezteko.

3.– Jendaurreko informazio-erakustaldiaren izapidea egiten ari den bitartean, instalazioak ukituko dituen udalei, aldundiari edo aldundiei eta ondasun edo eskubideren bat eraginda izango duten bestelako organismoei ere derrigorrean eskatu beharko zaizkie haien baldintzak. Baldintzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da gehienez.

Aurreko paragrafoarekin lotuta, ulertuko da epe barruan aurkeztu ez diren baldintzak aldekoak direla. Hala ere, horrek ez du eraginik izango kalifikazio eta baimen edo lizentzietan.

4.– Jendaurreko informazio-erakustaldia bukatu eta txostenik, alegaziorik edo kontraalegaziorik jaso bada, lurralde bulegoak edo Energia Zuzendaritzak ingurumen-organora bidaliko ditu proiektua, ingurumen-inpaktuaren azterketa eta hari egindako alegazioak, ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren deklarazioa egin dezan.

Ingurumen-inpaktuaren deklarazioaren edukiak ondorio lotesleak izango ditu bi gai hauetan: proiektuak exekutatzeko neurri eta baldintzetan eta, instalazioa instalatzea ezinezkoa dela deklaratzen bada, exekutatzeko ezintasunean.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta ingurumen-organoaren artean sortzen diren ezadostasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzaren Kontseiluak ebatziko ditu.

5.– Ingurumen-inpaktuaren deklarazioa eman ondoren eta, behar izanez gero, dagokion lurralde bulegoak txostena egin ondoren, espedientea Energia Zuzendaritzara bidali beharko da, eta honek hilabeteko epea du ebazpena emateko, jasotzen duenetik hasita.

Exekuzio-proiektua aurkezteko eta parkea martxan jartzeko baldintzak eta, behar izanez gero, epeak jarriko dira ebazpenean. Epea ez da 2 urtetik gorakoa izango. Onuradunak eskaera arrazoitua aurkezten duenean eta Energia zuzendariak ebazpen adierazia ematen duenean baino ezingo da luzatu epea. Baimenean jarritako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badira, baimena ezeztatu egin daiteke.

6.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 42. eta 43. artikuluei dagokienez, ebazpena hartzeko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, 7. artikuluan adierazitako agiriak organo eskudunaren erregistroan aurkezten direnetik aurrera. Epe horretan ebazpen adierazirik ematen ez bada, eskabidea ezetsi egin dela uler-

pública durante el plazo de un mes, mediante publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio que corresponda, a cuyo efecto se insertará una nota extracto de la solicitud en el Boletín Oficial correspondiente. Durante dicho plazo los interesados y cualquier ciudadano podrán examinar la documentación y presentar alegaciones.

3.– Con carácter simultáneo al trámite de información pública, se solicitará preceptivamente de los Ayuntamientos y de la Diputación o Diputaciones Forales en su caso afectadas, así como de cualquier otro Organismo en la parte que afecte a bienes o derechos a su cargo, los condicionados correspondientes que serán emitidos en el plazo máximo de un mes.

En relación con el párrafo anterior, se entenderá que todos los condicionados que no hayan sido emitidos en plazo tienen carácter favorable, sin perjuicio de las calificaciones y autorizaciones o licencias correspondientes.

4.– Finalizada la información pública y recibidos, en su caso, los informes, alegaciones y contraalegaciones a que hubiese lugar, la Oficina Territorial o la Dirección de Energía remitirá al Organo Ambiental el proyecto junto al estudio de impacto ambiental y las alegaciones al mismo, al objeto de que éste formule una declaración de impacto ambiental.

El contenido de la declaración de impacto ambiental tendrá efectos vinculantes en lo relativo a las medidas y condiciones para la ejecución de los proyectos, así como respecto a la imposibilidad de su ejecución como consecuencia de una declaración desfavorable.

Las discrepancias que pudieran generarse entre el Departamento de Industria, Comercio y Turismo y el Organo Ambiental, serán resueltas por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma.

5.– Una vez emitida la declaración de impacto ambiental, el expediente será remitido, informado en su caso por la Oficina Territorial correspondiente, a la Dirección de Energía, la cual dictará resolución en el plazo máximo de un mes desde la recepción.

En la resolución se establecerán las condiciones y el plazo, en su caso, para la presentación del proyecto de ejecución y para la puesta en marcha del Parque, que en todo caso no podrá ser superior a 2 años. Dicho plazo sólo será ampliable mediante solicitud motivada del beneficiario y resolución expresa del Director de Energía. El incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en la autorización podrá dar lugar a su revocación.

6.– En relación con los artículos 42 y 43 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el plazo para dictar y notificar la Resolución se fija en seis meses a partir de la fecha de presentación de la documentación señalada en el artículo 7.º en el registro del órgano competente. Transcurrido dicho plazo sin que se

tu beharko da. Ebazpen adieraziaren edo ustezko ezespenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Plangintza sailburuordeari, hilabeteko epean.

*8. artikulua.–* Exekuzio-proiektua onartzea.

1.– Instalazioen administrazio baimena eman ondoren, onuradunak, horretarako jarritako epearen barruan, exekuzio-proiektua aurkeztuko du, onartua izateko.

Onartua izateko aurkeztutako proiektuak bete egin beharko ditu industria kalitate eta segurtasunaren alorrean aplikatzekoak diren arauak, beti ere, elektrizitate eta industriaren alorreko legediaren arabera. Halaber, instalazio elektrikoetan aplikatzekoak diren erregelamenduetan adierazitako agiriez eta xedapenez gain, honako hau jaso beharko du: lekuan bertan 12 hilabetetik gora egindako neurketa eolikoen emaitzak, behar bezala justifikatuta.

2.– Baldin eta parke eoliko baten eskatzaileak exekuzio-proiektua dekretu honen 7. artikuluan adierazitako administrazio baimenaren fasean edo fase horren aurreko edozein unetan aurkezten badu, Energia zuzendariak onartuko du, 7-5 artikuluko ebazpen berean.

*9. artikulua.–* Martxan jartzeko akta.

Baimena emateko ebazpenean jarritako epearen barruan, instalazioak martxan jartzeko akta eskatuko dio parke eolikoaren titularrak dagokion lurralde bulegoari edo, parkeak lurralde historiko bat baino gehiago hartzen badu, Energia Zuzendaritzari. Izan ere, akta hori gabe parke eolikoa ezingo da martxan jarri.

*10. artikulua.–* Ekoizpen instalazioak aldatzea.

Dekretu honen arabera baimendutako ekoizpen instalazioetan funtsezko aldaketaren bat egiteko, beharrezkoa izango da administrazio baimena edukitzea aldez aurretik.

Baimenetan jarritako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badira edo baimena emateko kontuan hartutako oinarriak aldatzen badira, baimena ezeztatu egin daiteke. Organo bera izango da baimena emango duena eta ezeztatuko duena.

*11. artikulua.–* Lursailak lehengoratzea.

Parke eoliko bat instalatzeko baimenak baldintza hau dakar: energia elektrikoa ekoizteko jarduera amaitzen denean, instalazio guztiak kendu egin beharko dira eta instalazioak zeuden lursailak lehengoratu egin beharko dira, hau da, lursailak lehen zeuden moduan utzi beharko dira.

Parke eolikoak instalatzeko baimenetan ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen ez direnean ere es-

dicte resolución expresa, se podrá entender desestimada la solicitud. Contra la Resolución expresa o la desestimación presunta podrá interponerse, en su caso, recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Planificación, en el plazo de un mes.

*Artículo 8.–* Aprobación del Proyecto de Ejecución.

1.– Una vez concedida la autorización administrativa de las instalaciones, y dentro del plazo concedido al efecto, se presentará por el beneficiario, a efectos de su aprobación, el proyecto de ejecución.

El proyecto presentado para su aprobación deberá ajustarse a las normas de seguridad y calidad industrial aplicables según la legislación eléctrica y en materia de industria y deberá contener, además de los documentos y determinaciones señaladas en la reglamentación aplicable a las instalaciones eléctricas, los resultados, debidamente justificados, de las mediciones eólicas realizadas en el emplazamiento durante un periodo superior a 12 meses.

2.– Si el solicitante de un Parque Eólico hubiera optado por presentar el proyecto de ejecución en la fase de autorización administrativa descrita en el artículo 7.º de este Decreto o en cualquier momento anterior a aquella fase, su aprobación se realizará por la Dirección de Energía en la misma resolución del artículo 7-5.

*Artículo 9.–* Acta de Puesta en marcha.

Dentro del plazo de ejecución fijado en la resolución de autorización, el titular del Parque Eólico solicitará de la Oficina Territorial correspondiente, o bien de la Dirección de Energía en el caso de Parques que afectan a más de un Territorio Histórico, el acta de puesta en marcha de las instalaciones, sin la cual no podrá entrar en funcionamiento el Parque Eólico.

*Articulo 10.–* Modificación de las instalaciones de producción.

Las modificaciones sustanciales de las instalaciones de producción autorizadas conforme al presente Decreto requerirán autorización administrativa previa.

El incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en las autorizaciones o la variación de los presupuestos que determinaron su otorgamiento podrá dar lugar a su revocación. El órgano competente para acordar la revocación de la autorización administrativa será el mismo que la otorgó.

*Artículo 11.–* Restitución de terrenos.

La autorización de la instalación de todo Parque Eólico llevará implícita la obligación de remoción de las instalaciones y restitución de los terrenos que ocupa, una vez finalizada la actividad de producción de energía eléctrica, debiendo dejar los terrenos en su estado original.

La obligación de remoción de instalaciones y restauración de terrenos será igualmente exigible en los ca-

katuko da instalazioak kentzeko eta lursailak lehengoratzeko obligazioa.

Obligazio hori beteko dela bermatzeko, parke eolikoaren titularrak, martxan jartzeko akta ematen zaionetik hilabeteko epean, fidantza bat jarri beharko du, proiektuko obren aurrekontuaren %2koa. Fidantza instalazioak dauden artean mantendu beharko da eta estatuko kontsumorako prezioen indizearen arabera eguneratu beharko da urtero. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian jarriko da, dagokion kutxan edo kontuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskura, legez ezarrita dagoen moduan. Jarduera amaitzen denean itzuliko da, interesatuak eskatu ondoren eta instalazio guztiak behar bezala kendu direla eta lursailak lehengoratuta daudela egiaztatu ondoren.

Instalazioak kentzeko eta lurrak lehengoratzeko, beharrezkoa izango da proiektu bat prestatzea, zeina Energia zuzendariak onartu beharko duen.

III. KAPITULUA
ERREGIMEN BEREZIAN SARTZEA ETA DAGOKION ERREGISTROAN INSKRIBATZEA

*12. artikulua.–* Erregimen berezian sartzea.

Energia elektrikoa ekoizteko instalazio bat erregimen berezikoa izateko eta dagozkion erregistroetan inskribatzeko, abenduaren 23ko 2818/1998 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko da. Izan ere, baterako sorkuntza, hondakin eta energia-iturri edo baliabide berriztagarriez hornitutako instalazioek ekoiztutako energia elektrikoari buruzkoa da dekretu hori.

IV. KAPITULUA
JABETZA KENTZEA ETA ZORTASUNAK

*13. artikulua.–* Instalazioak herri erabilerarako direla deklaratzea.

1.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen IX. tituluan aurreikusitako ondorioetarako, dekretu honen eremuan sartutako instalazioak herri erabilerarako direla aitortzea Energia zuzendariak erabakiko du. Hala ere, Jaurlaritzaren Kontseiluak eskumena izango du, baldin eta zuzenbide publikoko entitate edo erakundeak aurka badaude.

2.– Aitormen hori interesatuak eskatu beharko du. Horretarako, bere ustez desjabetu beharrekoak diren ondasun edo eskubideen zerrenda, zehatuta eta banakatuta, aurkeztu beharko du.

3.– Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako direla deklaratzeak berekin dakar beti deklarazioak uki-

sos de incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en las autorizaciones de instalación de Parques Eólicos.

Para garantizar el cumplimiento de la obligación anterior, el titular del Parque Eólico deberá constituir, en el plazo de un mes a contar desde el otorgamiento del acta de puesta en marcha, una garantía por el importe del 2% del presupuesto de las obras del proyecto que deberá mantenerse durante toda la vida de la instalación y actualizarse anualmente mediante la aplicación del índice nacional de precios al consumo. Esta garantía se constituirá en la Tesorería General del País Vasco, en la caja o cuenta correspondiente, a disposición de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la forma legalmente establecida y será devuelta después del cese de la actividad, a solicitud del interesado, una vez se compruebe la correcta remoción de todas las instalaciones y la restitución de los terrenos.

La remoción de las instalaciones y la restauración de los terrenos exigirá la previa elaboración de un proyecto que deberá ser autorizado por la Dirección de Energía.

CAPÍTULO III
INCLUSIÓN EN EL RÉGIMEN ESPECIAL E INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO CORRESPONDIENTE.

*Artículo 12.–* Inclusión en el Régimen Especial.

La condición de instalación de producción de energía eléctrica acogida al régimen especial, así como su inscripción en los Registros correspondientes, se regirán por lo establecido en el Real Decreto 2818/1998 de 23 de diciembre, sobre producción de energía eléctrica por instalaciones abastecidas por recursos o fuentes de energías renovables, residuos y cogeneración.

CAPÍTULO IV
EXPROPIACIONES Y SERVIDUMBRES

*Artículo 13.–* Declaración de la utilidad pública de las Instalaciones.

1.– A los efectos previstos en el Título IX de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, el reconocimiento en concreto de la utilidad pública de las instalaciones incluidas en el ámbito de este Decreto, será acordado, en su caso, por el Director de Energía, sin perjuicio de la competencia del Consejo de Gobierno en caso de oposición de organismos u otras entidades de derecho público.

2.– Para dicho reconocimiento será necesario que el interesado lo solicite, incluyendo al efecto una relación concreta e individualizada de los bienes o derechos que el solicitante considere de necesaria expropiación.

3.– La declaración de utilidad pública llevará implícita en todo caso la necesidad de ocupación y adquisi-

tzen dituen ondasunak hartzea eta eskubideak eskuratzea, eta baita presazko okupazioa ere (Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legea, 52. artikulua).

Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako direla deklaratzeak berekin dakar, halaber, instalazio elektrikoa lursailetan ezartzeko edo lursailetatik pasatzeko baimena. Lursail horiek Estatuarenak edo Autonomia Erkidegoarenak izan daitezke (jabetza, erabilera edo zerbitzu publikokoak edo ondarezkoak) edota Lurralde Historikoarenak edo udalerriarenak (erabilera publikokoak, bereak edo komunalak, edota horien obra eta zerbitzuak eta zortasun publikoko eremuetakoak).

V. KAPITULUA
ZEHAPEN PROZEDURA

*14. artikulua.–* Organo eskudunak.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean aurreikusitako arau-hauspenak zehatzeko eskumenak, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen barruan, honako hauei dagokie:

a) Administrazio eta Plangintza sailburuordeari, oso larritzat tipifikatutako zehapenak ezartzeko, indarrean den legediarekin bat.

b) Energia zuzendariari, arintzat edo larritzat tipifikatutako zehapenak ezartzeko, indarrean den legediarekin bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean agindutakoarekin bat etorriz, prozedura amaitzeko eskumenak dituzten organoek prozedurak hasteko eskumena ere izango dute.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

1.– Dekretu hau indarrean sartu baino lehenagoko baimena duten parke eolikoen espedienteei ez zaie dekretu hau aplikatuko, aurretik zegoen araudia aplikatuko baitzaie.

2.– Dagokion baimenik eduki gabe ere, jendaurrean jartzeko izapidea eginda duten parke eolikoen espedienteek ez dituzte bete beharko dekretu honetako aginduak. Bete egin beharko dute, ordea, 11. artikuluan agindutakoa, hau da, fidantza jartzeko obligazioa. Jendaurrean jartzeko izapidea, bestalde, bi arautan aipatzen da: urriaren 20ko 2617/66 Dekretuan, Instalazio Elektrikoen Baimenei buruzkoan, eta abenduaren 1eko 1955/2000 Dekretuan, energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkataritza, horniketa jarduerak eta horiek instalatzeko baimenen prozedurak arautzeari buruzkoan.

3.– Dekretu hau indarrean sartzean izapideetan dauden parke eolikoen baimen-espedienteak, baldin eta jendaurrean jartzeko izapidea egin gabe badute, arau honetan agindutakoa bete beharko dute. Jendaurrean

ción de los derechos afectados e implicará la urgente ocupación a los efectos del Artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

Igualmente llevará implícita la autorización para el establecimiento o paso de la instalación eléctrica sobre terrenos de dominio, uso o servicio público o patrimoniales del Estado, o de la Comunidad Autónoma, o de uso público, propios o comunales del Territorio Histórico o municipio, obras y servicios de los mismos y zonas de servidumbre pública.

CAPÍTULO V
PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

*Artículo 14.–* Organos competentes.

Las competencias para sancionar las infracciones previstas en la Ley 54/1997, de 27 de noviembre del Sector Eléctrico, dentro del ámbito de competencias de la Comunidad Autónoma, corresponden:

a) Al Viceconsejero de Administración y Planificación la imposición de sanciones tipificadas como muy graves, de acuerdo a la legislación vigente.

b) Al Director de Energía la imposición de las sanciones tipificadas como leves y graves de acuerdo a la legislación vigente.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Publicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los órganos competentes para la resolución del procedimiento lo serán también para su iniciación.

DISPOSICION TRANSITORIA ÚNICA

1.– A los expedientes de Parques Eólicos que dispongan de autorización con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto, no les será de aplicación el mismo, rigiéndose por la normativa anterior.

2.– Los expedientes de Parques Eólicos que, aun no disponiendo de la autorización correspondiente, hayan sido sometidos al trámite de información pública a que hace referencia el Decreto 2617/66, de 20 de octubre, sobre Autorización de Instalaciones eléctricas, o en su caso el Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de energía eléctrica, no deberán ajustarse a las prescripciones de la presente norma, excepción hecha de lo dispuesto en el Articulo 11 sobre constitución de la correspondiente fianza.

3.– Los expedientes de autorización de Parques Eólicos que se encuentren en tramitación a la entrada en vigor del presente Decreto, sin haber sido sometidos al trámite de información pública a que hace referencia el

jartzeko izapidea, bestalde, bi arautan aipatzen da: urriaren 20ko 2617/66 Dekretuan, Instalazio Elektrikoen Baimenei buruzkoan, eta abenduaren 1eko 1955/2000 Dekretuan, energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkataritza, horniketa jarduerak eta horiek instalatzeko baimenen prozedurak arautzeari buruzkoan.

Ondorio horietarako, Energia Zuzendaritzak dekretua indarrean sartu dela jakinaraziko die aurreko paragrafoan azaldutako egoeran dauden espedienteak dituzten eskatzaileei, eta hogei eguneko epea emango die 3. artikuluan adierazitako agiriak aurkez ditzaten. Agiriok aurkeztu ondoren, izapideak egingo dira, dekretuan adierazitakoaren arabera.

Baldin eta eskatzaileak agiri horiek jarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, atzera egin duela ulertuko da, eta besterik gabe, artxibatu egingo da eskabidea, eta 30/1992 Legeko 42-1 artikuluan aurreikusitako ondorioak sortuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ahalmena ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, dekretu hau garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko maiatzaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Decreto 2617/66 de 20 de Octubre, sobre Autorización de Instalaciones eléctricas, o en su caso, el Decreto 1955/2000 de 1 de Diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de energía eléctrica, deberán ajustarse a lo dispuesto en la presente norma.

A estos efectos, la Dirección de Energía notificará a los peticionarios cuyos expedientes pudieran encontrarse en la situación recogida en el párrafo anterior, la entrada en vigor de este Decreto, otorgándoles el plazo de veinte días para que presenten la documentación establecida en el artículo 3. Presentada la documentación, se procederá a su tramitación de conformidad con lo señalado en este Decreto.

En el caso de que el peticionario no presentara la documentación en el plazo señalado, se le tendrá por desistido de su solicitud, archivándose sin más trámite, con los efectos previstos en el artículo 42-1 de la Ley 30/1992.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar cuantas disposiciones fueran necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de mayo de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## OSASUN SAILA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-3441

122/2002 DEKRETUA, 2002ko maiatzaren 28koa, animalien garraiorako ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroen egokitasun-baldintzak ezartzen dituena, animalien osasuna babesteko eta horien ongizatea bermatzeko.

Animalien garraiorako ibilgailuak desinfektatzea neurri eginkorra eta beharrezkoa da aziendaren infekzio-gaixotasunez babesteko eta horien aurka egiteko.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-3341

DECRETO 122/2002, de 28 de mayo, por el que se establecen los requisitos de idoneidad de los centros de limpieza y desinfección de vehículos de transporte de animales con objeto de garantizar la protección sanitaria y el bienestar de los mismos.

La desinfección de los vehículos de transporte de animales constituye una medida eficaz y necesaria para la prevención y lucha contra las enfermedades infecciosas del ganado.